Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Antonio Villar Oiarzabal

Oñati, Gipuzkoa (1939)



Aurkibidea

Biografia



Maletenean jaioa, Santa Marinan. Aita Olabarrietakoa zuen eta ama inklusakoa, 12 urtera bitarte Villabonan bizi izandakoa. Hiru senidetan zaharrena, gerra bukatu berritan jaioa. 3-6 urte artean mojekin ibili zen eskolan, eta ondoren maristekin; fraidekume joan zen Nafarroara eta Antzuolara, baina ez zen fraide bihurtu eta 19 urterekin Oñatira bueltatu zen. Garay lantegian hasi zen lanean. Garai horretan bakarlari moduan kantuan hasi zen eta baita gitarra irakasten ere. Oñatiko Irrintzi zortzikotearekin ere ibili zen. Ez Dok Amairu taldearen sorreran egon zen eta bi disko txiki klandestino grabatu zituen, euskaratutako abesti dantzagarriekin. Bergarako Ariznoa dantzalekuko orkestrako abeslaria izan zen hogei urtean. Hainbat lanetan jardun du: besteak beste, musika-tresnen denda eduki zuen, soinu teknikari gisa aritu izan da, aktore lanetan ibili zen Goenkalen eta idazlea ere bada. Laboratorium museoan egindako elkarrizketa, Bergarako euskararen historia soziala jasotzeko.

Zintak

ONA-292

- **Proiektua**: Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2023-02-17
- **Iraupena**: 87 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Oñatiko Maletenean jaioa

- **Erref**: ONA-292/002
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:00:32. **Bukatu**: 00:02:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Maletenean jaio zen, Santa Marina auzoan. Aita Olabarrieta baserrikoa zen. Hiru anai-arreba dira eta bera da zaharrena.

2. Amona eta ama gerratik ihesi

- **Erref**: ONA-292/003
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:02:28. **Bukatu**: 00:05:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Amonak ostatu bat zuen non apopiloak abertzaleak ziren eta gerran. Eibarko senide batek abisatuta jakin zuten mehatxatuta zeudela eta zigortu nahi zituztela bai bera eta bai ama. Ihes egin zuten Oñatitik eta 1938an bueltatu ziren. Amonari ostatua errekisatu zioten.

3. Errekisatutako josteko-makina berreskuta zuen amak

- **Erref**: ONA-292/004
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:05:38. **Bukatu**: 00:07:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:
Gerra ondoren, errekisatutako josteko-makina berreskuratu zuen amak. Zirkulo karlistan zegoen.

4. Gerraren eraginak

- **Erref**: ONA-292/005
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:07:44. **Bukatu**: 00:09:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Amak esaten zuen gerran denak biktimak izandakoak zirela. Beraien etxean amorru eta gorrotorik egon ez bazen ere, beste etxe batzuetan ez zen horrela gertatzen.

5. Ama, inklusakoa umea izan zen

- **Erref**: ONA-292/007
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:11:40. **Bukatu**: 00:13:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Hiru eta sei urte bitartean mojetan ikasi zuen. Eskola eta patioa nolakoak ziren. Dena gaztelaniaz eta neska eta mutilak banatuta. Aitak gaztelaniaz ez zuen inoiz egiten baina amak ondo egiten zuen, inklusako umea baitzen.

6. Maristetan euskaraz hitz egiteagatik zigortuak

- **Erref**: ONA-292/008
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:13:48. **Bukatu**: 00:16:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Nahiz eta eskola gaztelaniaz izan, umeek haien artean euskaraz hitz egiten zuten. Zerbait naturaltzat hartzen zuten. Ondoren maristetan ikasi zuen eta hor zigortu egiten zituzten euskaraz hitz egiteagatik. Eraztunaren zigorra. Euskaraz zeukan liburu bat kendu eta zortzi urtetara bueltatu zioten.

7. Kritikotasunak erlijiotik aldendu zuen

- **Erref**: ONA-292/009
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:16:13. **Bukatu**: 00:17:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:
Fraide izateko ikasketak egin zituen, lau urtez Nafarroan eta beste lau Antzuolan. Botoak egin baino lehen atera egin zen, hamabost urte zituenetik oso kritiko bihurtu zelako. Galdera deserosoak egiten zituen ikasgelan eta fraideek bazekiten ezin izango zutela Josean menderatu.

8. Musikan nola hasi zen

- **Erref**: ONA-292/010
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:17:51. **Bukatu**: 00:20:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Umetatik jaso zuen musikarekiko zaletasuna etxean. Amak oso ondo abesten zuen. Sei urterekin tiple izan zen Oñatin, koruan. Solo bat egin zuen ezkontza batean eta 50 pezeta jaso zituen. Eskolan ere musika ikasten jarraitu zuen, koruko zuzendaria izan zen eta gitarra eta bandurria jotzen ikasi zuen jotari batekin.

9. Gitarra irakaslea

- **Erref**: ONA-292/011
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:20:56. **Bukatu**: 00:22:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Gitarra ikasi ondoren, gitarra irakasten hasi zen eskolan bertan. Ondoren, Oñatin ere eman zituen klaseak eta rondaila txiki bat antolatu zuen. Musika-tresna bat ondo ikasteko ordu asko eskaini behar zaizkio.

10. Irrintzi zortzikotea

- **Erref**: ONA-292/012
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:22:53. **Bukatu**: 00:24:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Zortzikote bateko abeslaria izan da. Denak Oñatiko koruko abeslariak ziren eta Irrintzi kuadrillakoak. Izen bera jarri zioten zortzikoteari eta Gipuzkoako eta Euskal Herriko zortzikote lehiaketak irabazi zituzten. Bi diska grabatu zituzten, Jose Maria Arzuaga zuzendaria hil zenean.

11. Disko klandestinoak grabatzen

- **Erref**: ONA-292/013
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:24:32. **Bukatu**: 00:27:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Euskarazko bi diska ere atera zituzten, klandestinoki grabatuak, ez zutelako zentsura pasa. Grabazioa nola izan zen kontatzen du. Radio Paris-en entzuten zen haien musika.

12. Bakarlari bezala hamar urtez

- **Erref**: ONA-292/014
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:27:46. **Bukatu**: 00:30:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
1964ko diskoetarako aukeratutako kantak dantzagarriak ziren, ordurako hasita zegoelako Arrasate orkestinako abeslari bezala. 1958 eta 1968 bitartean, bakarlari bezala ere ibili zen abesten, Ez Dok Amaitu sortu zen arte. Jose Mari Iriondoren bitartez lortzen zituen emanaldiak. Galdakaoko dantza-taldearekin ere abesten zuen.

13. Galdakaoko Andra Mari dantza-taldearekin abesten

- **Erref**: ONA-292/015
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:30:27. **Bukatu**: 00:32:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Galdakaoko Andra Mari dantza-taldearekin abesten zuen, Iparragirreren kantuak abesten. Bermeoko emanaldi batean, bere burua eta Iparragirrerena aurkezteko eskatu zioten, handik ez baitzen hain entzuna.

14. Modako abestiak euskaraz abesten

- **Erref**: ONA-292/016
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:32:25. **Bukatu**: 00:34:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Denetarik kantatzen zuen baina ia dena euskaraz. Modan zeuden kantuak euskaratzen zituen.

15. Arrasate Orkestina I

- **Erref**: ONA-292/017
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:34:08. **Bukatu**: 00:35:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Arrasate orkestinari buruz hitz egiten du: kideak, musika-tresnak...

16. Artisten arteko konpetentzia ez zaio gustatzen

- **Erref**: ONA-292/018
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:35:39. **Bukatu**: 00:38:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Artista Berrien lehiaketan bigarren postua irabazi zuen, kanta modernoen atalean. Lehiaketetan parte hartzea ez zitzaion gustatzen, konpetentzia handia dagoelako.

17. Arrasate Orkestina II

- **Erref**: ONA-292/019
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:38:10. **Bukatu**: 00:39:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Arrasateko orkestinan, euskaratutako atzerriko kantak jotzen zituzten. Andoni eta Juan Mari Lekuonak egiten zituzten frantsesezko eta italierazko itzulpenak.

18. 'Basque Party' diskoetako kantak

- **Erref**: ONA-292/020
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:39:48. **Bukatu**: 00:42:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Arrasate orkestinarekin zortzi abesti grabatu zituen, bi diskotan (Basque Party I eta II). Abestiez hitz egiten du. Diskoen izena. Nemesio Etxaniz.

19. Musika modernoa egiten zuen, dantzagarria

- **Erref**: ONA-292/021
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:42:25. **Bukatu**: 00:45:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Julen Lekuonaren testu bati musika ipini eta gitarra lehiaketa batean bigarren saria lortu zuen 1976an. Epaimahaiak musika modernoegia zela baloratu

zuten. Bere diskak asko saldu ziren eta kontzertuetara ere jende asko joaten zen.

20. Ez Dok Amairuren sorrera eta lehen kontzertuak

- **Erref**: ONA-292/023
- **Iraupena**: 0:04:24. **Hasi**: 00:47:04. **Bukatu**: 00:51:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
1964ean hasi ziren Ez Dok Amairu sortzeko bilerak. Kantariak bakarrik biltzen ziren orduan: Jose Antonio Villar, Lourdes Iriondo, Joxean Artze, Mikel Laboa... Jose Mari Iriondok ikusi zuen bakoitza bere aldetik zebilela eta talde bat osatu behar zela. Lehenengo kontzertuak Gipuzkoan eta Iparraldean izan ziren.

21. Ez Dok Amairu uzteko arrazoiak

- **Erref**: ONA-292/024
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:51:28. **Bukatu**: 00:53:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Ez Dok Amaitu taldea uzteko arrazoiak kontatzen ditu: bere lanarekin ezin ondo uztartu, beti berdina abesten zuen eta ez zegoen bere buruarekin eroso eta taldekideen artean tirabirak hasi ziren.

22. Musika militantzia bezala

- **Erref**: ONA-292/026
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:53:57. **Bukatu**: 00:55:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Jose Antoniok musikari bezala oso gutxi kobratzen zuen. Galdakaoko Andra Mari dantza-taldearekin parte hartzen hasi zenean, haiekin 300 pezeta kobratzen hasi zen saio bakoitzeko. Diskoekin aldiz, 34.000 pezeta galdu zituen. Musika militantzia bezala bizi izan du.

23. Bergarako Ariznoa dantzalekuko orkestrako kidea

- **Erref**: ONA-292/029
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:57:18. **Bukatu**: 01:00:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Bergarako Ariznoa dantzalekua estreinatu zuten orkestra moduan, Miguel Sagastume soinu-jotzaile eibartarrarekin. Dantzalekuko soinu-sistema beraiek instalatu zuten.

24. Bergarako Ariznoako orkestraren kideak

- **Erref**: ONA-292/030
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 01:00:58. **Bukatu**: 01:02:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Ariznoa dantzalekuko orkrestako kideak: Migel Sagastume, Felipe Vitoria, Eusebio Gomez, Paco Gomez... Emanaldiak nolakoak izaten ziren.

25. Ariznoa dantzalekua beti jendez lepo

- **Erref**: ONA-292/031
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 01:02:51. **Bukatu**: 01:06:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Ariznoan, ostegun, larunbat eta igandeetan jotzen zuten. Igandeetan, arratsaldean eta gauean. Ordutegiak. Dantzalekua nolakoa zen. Neskak mahaiak okupatzen zituzten eta mutilek tabernaren barra. Bikote asko sortu dira Ariznoan eta gero beraien ezkontzetan jotzera gonbidatzen zituzten. 25-40 urteko jendea joaten zen dantzara.

26. Dantzalekuak ligatzeko lekuak ziren

- **Erref**: ONA-292/032
- **Iraupena**: 0:03:29. **Hasi**: 01:06:04. **Bukatu**: 01:09:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Ariznoa dantzalekua izan zen inguruan orkestrarekin jotzen zuen dantzalekua. Geroago, diskoteka ere jartzen zuten orkestaren atsedenaldietan eta baten bat kexu agertzen zen, diskotekako musikarekin ezin zutelako neskekin dantza egin. Plazak ere ligatzeko lekuak ziren.

27. Ariznoan orkestrarekin jotzen zituzten kantak

- **Erref**: ONA-292/033
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 01:09:33. **Bukatu**: 01:11:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Ariznoan, orkestrarekin hamarretik kanta bat euskaraz jotzen zuten. Jotzen zituzten kantak nola aukeratzen zituzten. Arratsaldeko eta gabeko saioak ezberdinak izaten ziren.

28. Kanta asko itzuli ditu euskarara

- **Erref**: ONA-292/034
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 01:11:52. **Bukatu**: 01:15:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Orkestrarekin jotzen zituzten euskarazko kantak aipatzen ditu. Itzulitako kantak izaten ziren eta jendeak buruz zekizkien. Inoiz kantatu ez dituen kantak ere euskaratu zituen.

29. Urretxindorrak eta Ameslariak taldeekin harreman ona

- **Erref**: ONA-292/036
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 01:16:20. **Bukatu**: 01:17:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Bergarako Urretxindorrak eta Ameslariak taldekoak lagunak zituen eta noizbait elkarrekin kantatu izan dute. Orkestren artean elkartasuna egoten zen. Gaur egun dagoen lehiakortasunari buruz hitz egiten du.

30. Musika, sentimenduen adierazle

- **Erref**: ONA-292/038
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 01:19:41. **Bukatu**: 01:20:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Musika komunikazioaren arlo bat da. Sentimenduak adierazten eta komunikatzen ez baditu, ez du baliorik.

31. Euskararen egoera kolokan dago

- **Erref**: ONA-292/040
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 01:21:02. **Bukatu**: 01:23:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Euskalgintzan ibili izan da Jose Antonio. Bere ekarpena ez da inoiz baliagarria izan, oso kritikoa izan delako beti. Euskararen egoera kolokan ikusten du. Erakundeek euskararen egoera hobetu dezakete, beharrezkoak diren neurriak hartu ezkero. Borondate falta dago.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-13

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com